

KANALAK

Bi zati ezberdin izango dira kontuan hartuko ditugunak gure produktua ezagutzera emateko. Lehenengo, interneten bidez salduko dugu. Geuk egindako web orria izango dugu, non informazio ezberdina aurkituko dute tupper eta botileei buruz. Gero, Supermerkatu handietan eta denda txikietan salduko dugu. Supermerkatuekin akordioak egin beharko ditugu, Alcampo eta Eroski bezalakoetan saiatuko gara saltzea. Guk bezalako produktuak saltzen dituzten denda txikiekin akordioak egitea saiatuko gara ere, hor gure produktua jartzeko.

Ezagutzera emateko, influencer ezberdinekin hitz egingo dugu, haiekin hitz egiterakoan tupper eta botila bidaliko diegu, gero beraiek probatzeko eta beraien kontuetan, instagramekoa edo horrelakoetan promozioa egiteko. Geure kontu propioak izango ditugu, horretan geure webaren link-a egongo da eta tupper eta botila ezberdinen argazkiak igota egongo dira ere, sorteo ezberdinak sortuko ditugu batzuetan non irabazleari edizio mugatu bat bidaliko diogu.

Produktua egoera ezberdinetan erabili daiteke, adibidez janaria lanera eraman nahi baduzu eta ez baduzu mikrouhin labe bat geure tupper-ak oso onak izango dira zuretzako daukan mekanismoarekin janaria beroa izateko aukera izango duzulako. Udan, adibidez, ura eraman nahi baduzu kalera baina beti berotzen bada eguzki izpiengatik, geure botila

beste aukera on bat izango da, duen mekanismoaren bidez ura hotza mantentzen duelako, aukera ezberdin gehiago daude non janaria beroa eta ura hotza euki dezakezun baina adibidez pasta entsalada bat eramaten baduzu eta hotza euki nahi baduzu edo infusio bat eraman nahi baduzu eta beroa gelditzea nahi baduzu, geure tupper eta botilak aukera oso onak izango dira ere zuretzako.

Gainera, web orrian (envasesjhonson.com) tupperrean eramateko janari ezberdinak aurkituko dituzu, baina janari gehiago eta osasuntsua egin nahi baduzu guk egindako liburua erosi ahal dezakezu. Han, errezeta ezberdinak agertuko dira, oso ondo azalduta eta argazki finalarekin, tupperrean sartuta, ikusteko nola den azkeneko emaitza. Liburuan nahiz eta errezeta osasuntsuak egon, batzuetan guztiak gustuko ditugun janari ez hain osasuntsuak egongo dira ere, guztien gustukoa izateko.